BEASAINdik

Beasaingo udal aldizkaria | *Revista municipal de Beasain*

2019
abendua *diciembre*
36



Berrikuntza lanak amaituta, Usurbe antzokiak zabaldu ditu bere ateak

Finalizadas las obras, Usurbe ya ha reabierto sus puertas

Beste lau urtez Beasain eraikitzen jarraitzeko lanabesa



Aitor Aldasoro | Beasaingo alkatea

Legealdia hasi berri dugun honetan, lerro hauek ere eskerrak emanez hasi nahiko nituzke; eskerrak aurreko lau urteetan egindako lana babestu eta etorkizuna eraikitzen jarraitzeko gure lan ereduaren alde egin zenutenoi, horri esker, beasaindar guztientzat gertutasunez, gardentasunez, erantzukizunez eta umiltasunez lan egiten jarraitzeko aukera berri bat baitugu.

Horretarako, baina, ezinbesteko erreminta dugu 2019-2023 legealdirako kudeaketa plana, herri proiektua sortu eta momentu oro, herritarren zerbitzura, gardentasunez eta gertutasunez lan egiteko.

Legealdirako kudeaketa plana gure egunerokotasunaren ardatz diren bost zutabetan oinarritu dugu: jarduera ekonomikoa eta enplegua, pertsonen ongizatea, herri nortasuna, udalerri irisgarri, zaindu, jasangarri, eroso eta atsegina eraikitzen jarraitzea eta guzti hori gobernu onean oinarritutako kudeaketa ereduari jarraituz burutu eta bermatzea. Zutabe horiek, noski, ekintza edota proiektu estrategikoek osatzen dituzte, besteak beste: Gipuzkoa plaza eta Arana kalearen arteko zubia eraikitzea, bakardade egoerei aurre egiteko programa berriak abiaraztea, Bonberia eraikina aktibatzeko lanketa burutzea, herri nortasuna indartzeko "herri marka" sortzea, Dolarea parkea berritzea, Ezkiaga auzoa berurbanizatzea, burdinbidea berreskuratzeko urratsak ematen jarraitzea, parte-hartzea sistematizatzea, Haurren Hiria proiektua abiaraztea…

Oraingoan ere, argi dugu nondik gatozen eta herritarrentzat zer nolako Beasain eskaini nahi dugun. Horri helduta egingo dugu lan; Beasainen eta beasaindarren etorkizunaren eraikuntzan.

Con el fin de responder a la confianza que las y los beasaindarras han depositado una vez más en nuestro equipo, hemos elaborado un Plan de gestión de legislatura basado en cinco pilares que conforman nuestra hoja de ruta diaria: la actividad económica local y empleo, el bienestar de las personas, la identidad propia y el seguir construyendo un municipio amable, cuidado y sostenible, todo ello, basado en el modelo de gestión del buen gobierno. Para ello desarrollaremos nuevos proyectos como la construcción de un nuevo puente entre la plaza Gipuzkoa y la calle Arana, la promoción de nuevos programas para combatir la soledad, la activación de Bonbería unido a la danza, la renovación del parque Dolarea…

Esta vez también tenemos claro de dónde venimos y qué Beasain queremos construir y trabajaremos día a día en la consecución de ese mismo objetivo.

2019-2023 korporazioa: EAJ-PNV 10 zinegotzi, EH Bildu 5 eta PSE-EE 2



Argazkia: Angel Redondo

EAJren udal taldea: Aitor Aldasoro, Leire Artola, Edorta Diaz, Jon Olano, Elena Ruiz, Adur Ugartemendia, Amets Arrospide, Xabier Matarranz, Malu Valles eta Ainara Aiestaran.
EHBildu udal taldea: Nerea Manzisidor, Asier Agirre, Mikel Olano, Maddi Imaz eta Joli Hernandez.
Alderdi sozialistatik Eva Alvarez eta Angel Redondo.

Usurbe antzokia birgaituta, berriro zabalik da



El Ayuntamiento de Beasain recientemente ha reacondicionado el teatro Usurbe, con el fin de mejorar la seguridad, accesibilidad, visibilidad y comodidad de sus usuarios. Entre las actuaciones realizadas destaca la reorganización de las butacas y del palco, de forma que actualmente los 360 asientos del teatro son útiles.

Urte amaiera honetan, Usurbe antzokiaren 25.urteurrena izango da. Antzokiak 1994ko abenduan zabaldu zituen ateak lehen aldiz, eta orduz geroztik ez da inolako berrikuntza edo egokitzapen lanik egin bertan. Hori dela eta, bertako instalazio zein azpiegiturak nahiko zaharkituak zeuden eta hori aintzat hartuta, Beasaingo Udalak udaldia aprobetxatu du antzokia egungo beharretara egokitu eta zenbait berrikuntza egiteko.

Horien artean, besaulkien eremua berrantolatu du Udalak. Horretarako antzokia erdibitzen zuen pasilloa kendu eta alde banatan bi korridore berri jarri ditu. Horrela, eserleku guztiak erdiko besaulki patioan batu dira ikusleen ikusgaitasuna hobetzeko. Era berean, eserlekuen arteko distantzia zabaldu du erabiltzaileen erosotasuna bermatzeko eta irisgarritasunari erreparatuz, ezinduentzat egokitutako eserlekuak ere jarri ditu.

Antzokiko goiko zatia (palkoa) ere egokitu egin du, azkeneko ilarako eserlekuak kenduta. Aldaketa horiei esker, egun 360 eserleku ditu antzokiak eta lehen ez bezala, guztiak dira erabilgarriak. Horiez gain, emergentziazko irteerak ere egokitu eta hobetu ditu Udalak. Lanen helburuak hain zuzen erabiltzaileen segurtasuna, irisgarritasuna, ikusgaitasuna eta erosotasuna bermatzea izan dira eta horretara bideratu ditu, zehazki, 228.446,22€.

2020ko ordenantza fiskalak

De cara al 2020, el Ayuntamiento de Beasain ha aprobado los siguientes cambios en las ordenanzas fiscales: la subida del 5% en la tasa de basuras y una reducción de 67€ a 20€ euros en el pago correspondiente a los garajes individuales o locales cerrados. Se adecua el impuesto sobre vehículos a la norma foral, quedando exentos del pago del mismo los vehículos de más de 30 años.

Ordenantza fiskalen bitartez, Beasaingo Udalak helburu du beti herritarren gaineko presio fiskala baretzen saiatzea, betiere, gastu eta diru sarreren arteko oreka mantenduz eta bermatuz. Horretarako aurten ondorengo aldaketak onartu ditu: azken 4 urteetan igoerarik izan ez duen zaborren tasa %5 igotzea, garaje indibidualen eta lokal itxien zabor tasa 67€tik 20€ra jaistea eta trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga Foru araudira egokitzea. Horren arabera, 2020tik aurrera 30 urtetik gorako ibilgailuek ez dute zerga hori ordaindu beharko.

EGUTEGI FISKALA *CALENDARIO FISCAL*

ZERGAK eta TASAK 2020 *IMPUESTOS Y TASAS 2020*		**Kobrantza epea** *Plazo de pago*
Egoiliarrentzako aparkalekua *Aparcamiento para residentes*		2020.01.02 - 2020.02.29
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zerga *Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica*		2020.02.01 - 2020.03.31
Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ) *I.B.I.*		2020.05.15 - 2020.06.30
Ibilgailuak finka hiritarretan sartzea *Entrada de vehículos en fincas urbanas*		2020.09.01 - 2020.10.31
Ibilgailuen geraleku eta kokagunea *Parada y situación de vehículos*		2020.09.01 - 2020.10.31
Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga (J.E.Z.) *Impuesto sobre Actividades Económicas (I.A.E.)*		2020.10.01 - 2020.11.10
Kioskoak herri bidean *Quioscos en la vía pública*		2020.10.01 - 2020.11.30
Zabor-bilketa *Recogida de Basuras*	1. seihilekoa *1º trimestre*	2020.03.01 - 2020.04.30
	2. seihilekoa *2º semestre*	2020.09.01 - 2020.11.30

Éxito rotundo de la nueva pista de Pump Track de Igartza

Igartzan kokatutako 1300m²ko azaleradun eremu degradatua berreskuratzea helburu hartuta eta akupuntura urbanoaren filosofiari jarraiki, Beasaingo Udalak herriko eta eskualdeko lehen pump-track pista eraiki du bertan, herritarrei kirol eta aisialdi aukera berriak eskainiz. Honen harira, *Christian Tidow, pista egiteko ardura izan duen enpresako zuzendaria elkarrizketatu dugu*



Entrevista a Christian Tidow director de Pump Track Park S.L.

¿Qué es el Pump Track?

El Pump Track viene a ser un carril bici de inercias con ondulaciones en las rectas y con curvas peraltadas. El secreto en este caso es conseguir hacer todo el recorrido del circuito sin necesidad de pedalear, únicamente impulsándose con la inercia adquirida con el cuerpo en las ondulaciones, saltos y peraltes del circuito. El Pump Track sirve para cualquier artilugio deportivo que tenga ruedas y no sea de motor.

¿Qué es lo que se ha llevado a cabo en Beasain?

Dentro de la superficie que había disponible - unos 1300m² aproximadamente entre el skate park que había anteriormente y una parcela de cesped natural - hemos construido dos pistas, una infantil para niñas/os muy pequeños de entre 3 y 5 años - que ocupa unos 200m² - y la otra para personas a partir de 5 o 6 años y que ocupa unos 1000m².

¿Cuáles son las características de la pista de pump track de Beasain?

Dentro de los acabados de las pistas de pump track, la que se ha construido en Beasain la definimos como acabado "premium", que es un acabado que no tiene ningún tipo de mantenimiento y cuya pista y taludes son completamente asfaltados. Además de ello, se han cubierto con césped artificial todas las islas interiores y los espacios que han quedado vacíos. Para la construcción de la pista se ha empleado un asfalto especial, es decir, un asfalto de calidad, con un gran espesor para que con el tiempo no tenga ningún problema de fisuras o roturas. Podemos decir, por tanto, que es una ejecución pensada en la durabilidad de la pista.

"El pump track está triunfando mucho porque socialmente los jóvenes están evolucionando su forma de hacer deporte"

Además se ha recubierto toda la pista con una capa de un producto que se llama "slurry", un tipo de sellante para hacer el asfalto aún más suave. Asimismo, se ha compactado todo de forma artesanal para que el acabado de la pista fuese lo más fino posible para las ruedas de las bicicletas, patinetes, monopatines.

Actualmente en el País Vasco hay cuatro pistas de pump track, una en Legazpi, otra en Beasain, otra en Etxebarri y una pista de tierra en Donostia y a nuestro parecer, la pista de Beasain es la más completa en cuanto a terminaciones y acabados.

¿Cuál es la clave del éxito del pump track?

El pump track está triunfando mucho porque socialmente los jóvenes están evolucionando su forma de hacer deporte. Esto quiere decir que, el pump track, al ser una instalación deportiva más popular, más sencilla y más fácil de usar, tiene una mayor aceptación. Además, cabe destacar que las y los jóvenes de hoy en día practican multideporte, con lo cual, el pump track, al tratarse de una instalación más sencilla y divertida, se ha convertido en un espacio de éxito. Asimismo, dentro de lo que son los carriles bici o zonas para andar en bicicleta, considero que las pistas de pump track son una de las pocas instalaciones donde un padre o una madre puede montar con su hija/o y disfrutar los dos a la vez, cosa que habitualmente no puede se puede hacer por la carretera o por un carril bici a la hora de hacer una ruta larga. Eso es algo que ofrece el pump track que no ofrecía cualquier otra instalación de ciclismo anteriormente.

Herritarren segurtasuna eta ongizatea ardatz Trenbide kaleko birmoldaketa lanetan



Trenbide kalea ha ganado en seguridad y en plazas de aparcamiento gracias a los trabajos realizados recientemente por el Ayuntamiento: mejorar el estado de la carretera, trasladar los aparcamientos pegados a la playa de vias al otro lado de la misma y organizar el aparcamiento en batería en Gernika pasealekua ganando así 39 plazas más. Además de ello también ha instalado un servicio público en Trenbide kalea.

Herritarren ongizatea bermatzea izanik udal jardunaren ardatz nagusietako bat eta aparkalekuaren gaia, halaber, herritarrek gehien kezkatzen dituen gaietako bat, Beasaingo Udalak biak uztartu eta birmoldaketa lanak egin ditu berriki Trenbide kalean. Egindako lanen bitartez helburu izan du eremuko segurtasuna hobetu eta bertako aparkaleku kopurua handitzea.

Gauzak horrela, Barrendain plazatik hasita Gernika pasealekuko eremura bitartean errepidea hobetu eta trenbide aldean zeuden aparkalekuak errepidearen beste aldera pasa ditu. Modu horretara errepidea gurutzatzeko zegoen arriskua saihestuz.

Era berean, Gernika pasealekuko aparkalekuak berrantolatu ditu Udalak eta horri esker, 39 aparkaleku gehiago irabazi ditu aipatu eremuak.

Aparkalekuaz haratago, Trenbide kalean komun publikoak ere jarri ditu Udalak. Izan ere, aipatu gunea oinezko asko ibiltzen den eremua da eta horrez gain, gero eta ekitaldi gehiago antolatzen dira bertan. Horrenbestez, egokitzat jo du Udalak bertan horrelako instalazio publikoa jartzea.

Azaroaren 25ean ere, Beasain Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka

El pasado 25 de noviembre se celebraba el Día Internacional contra la Violencia sobre las Mujeres, motivo por el cual el Ayuntamiento de Beasain organizó, junto con Asmube, Oriako Lamiak elkartea y los centros escolares del municipio, un programa especial con el fin de condenar una vez más la violencia de género y defender la igualdad y el respeto como base indispensable para la convivencia.



Joan den azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Eguna ospatu zen eta horren harira, Beasaingo Udalak eta herriko hainbat elkartek zein eskolek egitarau berezia antolatu zuten, emakumeen aurkako indarkeria, eraso edota jarrera sexista oro gaitzetsi eta errespetua eta berdintasuna bizikidetzaren oinarrizko printzipio gisa aldarrikatzeko. Gauzak horrela, urrian hasita azaroaren 25a arte ekintza andana eraman ziren aurrera Beasainen: indarkeriaren aurkako matazak, pankarta, kontzertua edota azaroaren 25eko elkarretaratzea, Asmube elkartearen eskutik, Oriako Lamiak elkarteak antolatutako tailerra, dokumentala zein solasaldia eta mahai ingurua, azaroaren 25ean herriko ikastetxeek ikasleekin Gernika pasealekuko frontoian eginiko ekitaldia edota udaleko Berdintasun sailak azaroaren 27an Beasaingo XVI. mendeko emakumeen inguruko ikerketa antropologiokoaren aurkezpena egiteko antolatutako hitzaldia. Ekintza oro partaidetsuak eta arrakastatsuak izan ziren eta horregatik, Beasaingo Udalak eskerrak ematen dizkie herritarrei, azken finean, Indarkeria matxistari aurre egitea guztion ardura delako eta eraso sexistak gaitzesteko indarrak batzea ezinbestekoa delako.

BEASAIN HERRI BIZIA

Adinekoen dantzaldia Erauskin plazan

Plaza berriari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, besteak beste, adinekoen hileroko dantzaldia antolatzen hasi zen Udala irailean. Geroztik izan diren dantzaldiak arrakastatsuak izan dira eta, printzipioz, ekimena urte guztirako pentsatuta badago ere neguko hotzak dantzariak uxatzen dituen ikusi beharko da.

Desde septiembre se está celebrando el baile mensual en la plaza Erauskin. Se prevé organizar esta actividad a lo largo de todo el año, aunque habrá que ver si el ambiente invernal espanta a las bailarinas y los bailarines.





Beasaingo 35. odolki lehiaketaren txapela berriz ere Olano harategira





Euskal Herriko 5. Burruntzi txapelketa

Benito Lertxundik kontzertu bikaina eskaini zuen urriaren 25ean Usurbe antzokian



Pump Track pista berria martxan!









Txirrindu festa2019





Ziklokrosa



Astigarretako jaiak



Azaroak 25



BEASAINDARRAK PROTAGONISTA



Ezkerretik eskuinera: Josu Garate, Mikel Sarriegi eta Oier Araolaza

Aurtzaka, 40 años impulsando la danza tradicional como seña de identidad de Beasain

La danza tradicional es una parte importante de nuestro patrimonio y partiendo de esa premisa, durante los últimos años el Ayuntamiento de Beasain ha hecho especial hincapié en su apuesta por enraizar la danza local como parte fundamental de la identidad del municipio. Para ello, ha contado con el apoyo del colectivo dantzan.eus, con el cual mantiene actualmente una estrecha colaboración y por supuesto, con el grupo de danza tradicional local Aurtzaka, el cual este año está de aniversario, ya que cumple 40 años dedicados a la formación y a la enseñanza de la danza popular y dándola a conocer no sólo a nivel local sino también a nivel comarcal, estatal e incluso internacional.

Aurtzaka nació como la unión de Goierri dantza taldea y el grupo infantil Salleko Adiskideak. Ambos grupos llevaban un recorrido de unos 8 años, tiempo en el cual tejieron una estrecha amistad hasta su fusión en 1979. Ahora, de cara al futuro, el objetivo de todos ellos es el mismo: unir fuerzas, recursos, y sobre todo, ilusión por seguir impulsando y enraizando la danza tradicional en Beasain y que el municipio sea referente en este tipo de danza, haciendo de ella una seña de identidad local propia.

Aurtzaka dantza taldearen 40. urteurrenaren aitzakian, Josu Garate eta Oier Araolaza Dantzan.eus-eko kideekin eta Mikel Sarriegi Aurtzakako dantza irakaslearekin dantza tradizionalaren eta Aurtzaka dantza taldearen inguruan hitz egiteko aukera izan dugu.

OIER ARAOLAZA ETA JOSU GARATEri elkarrizketa

Nola ikusten duzue gaur egun dantza tradizionala?

Dantza tradizionala dantzatzen duten pertsona kopuruari erreparatuz gero pozgarria eta harrigarria ere gerta liteke horrenbeste pertsona aritzea ohiko dinamiketan dantzan. Errealitate guzti horrek, ordea, ez du beti instituzioetatik behar duen errekonozimendu eta laguntzarik jasotzen, bigarren mailako kultur jardueratzat izaten dutelako oro har. Zentzu horretan ohiz kanpokoa da Beasaingo Udalak erakutsitako borondate eta sentsibilitatea. Nolanahi ere, kantitatea baloratzeko kualitatea ere kontuan hartzea komeni da eta horretan gure ustetan badugu zer hausnartu. Globalizazioak jota eta konortea galduta bizi garen gizarte eta garaiotan etxean ere dena uniformatzen darraigu; euskararekin gertatu antzera, gero eta berdinago hitz egiten dugu han eta hemen, eta gurea dugun euskal gorputz komunikazio moduak ere - euskal dantzena alegia - gero eta kolore eta ñabardura gutxiago ditu. Beste edozein kultur jardueretan egin moduan, dantzaren transmisioan gabiltzanok ardura handia dugu horretan, baina non formatu behar dugu? Non dago dantza gure eskoletan? Non daude erakutsiko duten profesionalak? Aipatutako konplexutasunak, instituzioen urruntasunak eta barrutik bizi den noraezak sorgin gurpilean harrapatuta gaitu.

Zein bilakaera izan du dantzak Beasainen?

Euskal dantza tradizionalaz hitz egiterakoan, milurteko honetan benetan osasuntsu egotera eraman duen inertzia antzematen da, batez ere inguruko beste errealitate batzuekin alderatuta. Jende ugari ari da dantzan Beasainen eta kopuruak gora egiten jarraitzen du. Inertzia hau ez da berez sortutakoa, lanaren eta ongi finkatutako iparrorratzaren ondorioa baizik. Herriko dantza talde eta eragileen nahi, gogo, energia eta lidertza egokiei instituzio publikoen oinarrizko babes eta sentsibilitatea batu zaizkie eta horrek kalitatez zein kantitatez Beasaingo dantzaren egoera osasuntsua ekarri du.

"Jende ugari ari da dantzan Beasainen eta kopuruak gora egiten jarraitzen du"

Eta nola irudikatzen duzue etorkizuna?

Euskarari buruz hitz egiten dugunean bezala, gure dantzak "salbatuta" daudela pentsa lezake norbaitek, baina fitxa, katalogo eta ondare izendapenekin museotarako materiala batzeko arriskua dugu. Dantzek funtzio bat bete behar dute, garaian garaikoa, eta hori lekuan lekukoak bilatu beharrekoa da. Denok dugu dantzatu beharra. Edozein dela lengoaia ere - lotuan edo soltean, hip-hop, jazz, flamenkoa, salsa edo regetoia - zergatik ez dantzatu euskaraz, ere? Guk jaso dugun moldean dantzatzea maite dugu, gu egiten gaitu, gaur eta hementxe kokatzen gaitu, euskaraz bizitzeak, kantatzeak edota irakurtzeak egiten gaituen moduan. Dantza tradizionalak, euskarak moduan, jaso dugun moldean dantzatzeari (gure eginda beti ere) erabilgarritasuna, funtzioa eta beharra ikusten diogun neurriko etorkizuna izango du, kantitate eta kualitatez, eta gure ustetan, beharrezkoa da bien arteko oreka bat izatea datozenei transmititzen jarraitzen badugu.



Argazkia: Iñaki Erauskin

MIKEL SARRIEGIri elkarrizketa

Zein izan da Aurtzaka dantza taldearen bilakaera?

1979az geroztik ibilbide luzea izan du taldeak. Martxan jarri zenean, 200 lagun baino gehiagok osatzen genuen jada taldea: 50 musikari inguru eta 150 haur eta 30 heldu dantzariak. Gainera, gaur egungo ikuspuntutik begiratuta bitxia bada ere, 10 urtetik gorako dantzarien artean gehiago ziren mutilak neskak baino.

80ko hamarkada oso betea izan zen: ekitaldi asko eskaini genituen Euskal Herrian zehar, haurren eskola indartsu bat osatu genuen eta lehen bidaiak egin genituen atzerrira. 90eko hamarkadaren hasieran, ordea, nolabaiteko pattalaldia ezagutu genuela esan daiteke, bai guk, baita Euskal Herriko ia dantza talde gehienak ere. Egoerari aurre egin eta taldearen dinamikan eredu berriak txertatzera behartuak egon ginen, eta horri esker Aurtzaka berrindartu egin zela esango nuke. Behin oinarri horiek jarri eta gero, azken 10-15 urteetan oso ekintza eta ekimen arrakastatsuak bultzatu ditugu eta taldearen osasuna oso ona dela esan daiteke.

Gaur egun, Goierriko dantza ohitura eta tradizioekin lan egiten dugu nagusiki, bertako zenbait ohitura berreskuratuz eta sustatuz. Aldi berean, azken urte hauetan asko izan dira bisitatzeko eta gure dantzak ezagutzera emateko aukera eskaini diguten nazioarteko herrialdeak ere: Argentina, Kolonbia, Espainia, Eskozia, Inglaterra, Gales, Polonia, Bretainia, Bulgaria, Hungaria, Turkia, Kroazia, Serbia, Galizia eta Katalunia.

"Goierriko dantza ohitura eta tradizioekin lan egiten dugu nagusiki, bertako zenbait ohitura berreskuratuz eta sustatuz"

Urteurrena dela eta, zer egin edo egingo duzue?

Urteroko ekintzez gain, badira bereziki prestatu eta zaindu ditugunak, urteurrena tarteko: irailean zehar dantzari lotutako hainbat ekintza burutu genituen - Soka erakusketa Igartza jauregian, Jaien eta Dantzen Ondareari buruzko jardunaldiak, soka-dantzei buruzko hitzaldia… -Urrian taldeko kide eta lagun izandako guztiei deialdia egin eta 400 dantzari-musikari baino gehiago elkartu ginen jai-egun eder bat ospatzeko eta ekitaldiei amaiera emateko, azaroaren 30ean Loinatz Abesbatzarekin batera dantza eta kantu ikuskizuna eskaini genuen Andre Mari Parrokian. Horrez gain, urteurrena gogoratzeko kamiseta bat ere atera dugu.

Eta orrialde hauek eskaintzen didaten aukeraz baliatu nahi dut gure taldearen izenean, parte hartzaile izan diren eta lagundu gaituzten guzti-guztiei eskerrik beroenak emateko. Jarrai dezagun dantzan luzaroan!

ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAIKITZEN



AURREKONTUAK 2020 | PRESUPUESTOS 2020

DIRU SARRERAK | *INGRESOS*		GASTUAK | *GASTOS*	
Zuzeneko zergak *Impuestos directos* (IBI, IAE, Ibilgailuak...)	3.756.600,00	Pertsonala | *Personal*	5.401.672,64
		Gastu arruntak | *Gastos corrientes*	6.663.616,34
Zeharkako zergak *Impuestos indirectos* (Eraikuntza eta Obren gaineko zerga)	250.000,00	Gastu arruntei aurre egiteko elkarte eta herritarrentzako dirulanguntzak *Subvenciones para asociaciones y ciudadanos para gastos corrientes*	2.803.154,62
Tasak eta beste sarrerak | *Tasas y otros ingresos* (Zaborrak, TAO, isunak, azoka...)	2.465.409,00		
Zerbitzuetarako dirulaguntzak *Ayudas para servicios* (Fondo Foral...)	10.121301,74	Aurrekontuaren doikuntza *Ajuste presupuesto*	100.000,00
Ondare sarrerak | *Ingresos patrimoniales*	40.800,00	Aurrerakinak | *Anticipos*	77.000,00
Inbertsioetarako dirulaguntzak *Ayudas para inversiones*	34.500,00	Mailegu ordainketa | *Pago de créditos*	453.635,64
Finantza aktiboa | *Activos financieros*	18.300,00	Inbertsioak | *Inversiones*	1.187.832,00
SARRERAK GUZTIRA *INGRESOS TOTALES*	16.686.910,74	GASTUAK GUZTIRA *GASTOS TOTALES*	16.686.911,24

AURREKONTU OSOA | *PRESUPUESTO TOTAL* **16.686.911,24 euro**

Un presupuesto de 16.686.911,24 millones para invertir en el bienestar de las y los beasaindarras

La corporación municipal del Ayuntamiento de Beasain aprobaba el pasado 28 de noviembre el documento presupuestario para el año que viene; un documento basado en el modelo de gestión del buen gobierno, en el fomento de la economía y el empleo local, en el bienestar y la calidad de vida de las y los beasaindarras, en la identidad del municipio y en la construcción de un municipio amable, cómodo y accesible con un entorno rural cuidado y sostenible.

Así pues, atendiendo a dicho documento, de cara al 2020 Beasain contará con un presupuesto de ***16.686.911,24 euros*** *de los cuales el 47,43% se destinará al ámbito de la Ciudadanía, el 32,61% a Territorio y el restante a Organización.*

Oposizioak egindako ekarpen guztiak txertatu dira 2020ko aurrekontuan

EH BILDU:

- Isabel Olano parkea berregituratzea eta azterlanerako proiektua egitea
- Irisgarritasuna hobetzeko Mateo Mujika eta Aranzazu kaleetako proiektuak egitea
- Bista Alai kalea txukuntzea eta gabeziak aztertzeko proiektua egitea
- Plangintza enerjetikoa egitea
- Mugikortasun mahaia sustatzea
- Berdintasun arlorako plana aurrera eramateko teknikari bat kontratatzea
- Gaztedi sailerako teknikari bat kontratatzea
- Adineko pertsonen dinamizatzailearen zerbitzua handitzea

PSE-EE:

- Mateo Mujika eta Lorategi kaleetako irisgarritasuna hobetzea
- Institutoko eskailerak hobetzea
- Nekolaldetik Urbialderako bidea txukuntzea
- Erauskin kaleko aparkalekuan egokitzapenak egitea
- Sagastigutia parkeko mantenua egitea
- Txakur jabeentzako sensibilizazio kanpainak egitea
- Edukiontzietatik kanpo zaborrak uzten dituztenentzako sensibilizazio kanpaina egitea
- Mugikortasun plana egitea
- Ibilgailuen abiadura txikitzeko sentsibilizazioa
- Zebrabideen ikusgarritasuna hobetzeko espaloia zabaltzea
- Markesinak konpontzea
- Doako wiffi puntuak gehitzea

ANTOLAKUNTZA *ORGANIZACIÓN*	3.330.889,90 euro
HERRITARRAK *CIUDADANÍA*	7.914.711,34 euro
LURRALDEA *TERRITORIO*	5.441.310,00 euro

GUZTIRA TOTAL : 16.686.911,24 euro

ANTOLAKUNTZA *ORGANIZACIÓN*

- Enplegu Planari jarraipena eman: besaindar langabetuentzat formazio ikastaroa Goierri Eskolan
- Merkataritza sustatzeko alokairurako dirulaguntzak lehen hiru urtetan
- Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erbilera instituzionala normalizatzeari buruzko 179/2019 dekretuaren garapena

HERRITARRAK *CIUDADANÍA*

- Etxez-etxeko laguntza zerbitzura bideratutako aurrekontua igo
- 80 urtetik gorako herritarrei su-detektagailuak jarri
- Txirrindularitza sustatzeko Euskadi Fundazioarekin lankidetza mantendu
- Saskibaloi kantxako pista berritu
- Igartza Musika Beka, Igartza Musika Programei jarraipena eman eta dantzan.eus-ekin lankidetza mantendu
- Naturaltasunez irakurketa sustatzeko etxolak jarri
- Bonberia aktibatzeko lanekin jarraitu
- Hizkuntza politikari bideratutako proiektuei jarraipena eman eta begirale titulua eskuratzeko ikastaroa martxan jarri
- Herrilab: ekintza plana abiarazi, Foru Aldundiarekin elkarlanean kontziliazio erantzunkidea lantzen jarraitzeko

LURRALDEA *TERRITORIO*

- Dolarea parkea birgaitzeko proiektua eta Igartza Oleta kalean norabide bikoitza ahalbidetzeko lanak burutu
- San Inazio kalea eraberritu eta Oriamendi kalea konpontzeko azterlanak egin
- Erakusketa areto berri bat jarri herriaren erdigunean
- Porteria eremuko uholdegarritasunari irtenbidea emateko lanekin jarraitu
- Bernedoko aparkalekuan argiteria hobetu eta udalerriko toki adierazgarrienen argiztapenaren proiektuarekin jarraitu
- Baserri bideen mantenurako kontu saila igo
- Txakur parkeetan iturriak jarri eta argiteria hobetu
- Oria ibaia balioan jartzeko, natur bidea edo ibilbide berdea egiteko azterlana egin
- Haurren begietatik egindako herria eraikitzeko "Haurren Hiria" proiektua gauzatu

Zer egin dezakezu Beasain app-arekin?

¿Qué puedo hacer con la app Beasain?

Hainbat informazio izango dituzu eskura honako ataletan.
Acceder a diversa información de interés.

- **ALBISTEAK** *NOTICIAS*
- **AGENDA** *AGENDA*
- **MULTIMEDIA** *MULTIMEDIA*
- **ERAGILEAK** *AGRUPACIONES*
- **TURISMOA** *TURISMO*
- **FARMAZIAK** *FARMACIAS*
- **TELEFONOAK** *TELÉFONOS*
- **GARRAIOAK** *TRANSPORTE*
- **EGURALDIA** *TIEMPO*
- **OHARRAK** *AVISOS*
- **ESKELAK** *ESQUELAS*

Zer gehiago? *¿Qué más?*

INTZIDENTZIAK

Herriko azpiegituretan konponketaren baten beharra ikusten baduzu, hemen jakinarazi diezaiokezu udalari.
Notificar incidencias que detectes en las infraestructuras del municipio.

TRAMITEAK

APParen bitartez eta B@kQ erabiliz, zenbait tramite egin ditzakezu atal honetan.
Con la app y el B@kQ puedes realizar diversos trámites.

PARTE-HARTZEA

Atal honen bidez Udalak antolatzen dituen parte-hartze prozesuen inguruko informazioa eta horietan parte hartzeko aukera izango duzu.
Acceder a la información sobre los procesos participativos que organiza el Ayuntamiento y participar en los mismos.

MUGIPARK

Zoaz zuzenean gune arautuetan aparkatzeko aplikazioara.
Acceder a la aplicación para aparcar en las zonas de estacionamiento regulado.



Beasaingo Udala | Loinazko San Martin plaza - 20.200 Beasain | 943 02 80 50 | udala@beasain.eus | www.beasain.eus
© Edizioa: Beasaingo Udala L.G.: SS 403-2016